

Errugbia ♦ Benidormen eta Lisboan ariko dira bi asteburuotan, zazpikako modalitatean

Euskarians berriro lehian

Iaz finalerdietara heldu zen Benidormen, eta finalera Lisboakoan

Koldo Alduntzin / Donibane-Lohizune

IPAR ETA HEGO Euskal Herriko jokalariek bat egin, eta nazioarteko bi txapelketatan jardungo dute Euskarians taldearekin, bi asteburuotan. Zazpikako modalitatean ariko dira, Benidormen (Espainia) eta Lisboan (Portugal). Iaz ere horietan bietan gutxienez esku hartu zuten: Benidormekoan ez zuten nahi bezalako emaitza lortu, baina Lisboan finala jokatu zuten.

Asteburu honetan Benidormen jardungo dute, eta txapelketa hori prestatzeko joan den asteartean egin zuten azken entrenamendu saioa, Donibane-Lohizuneko Pabilioi Urdinean. Hamar jokalaria eramango dituzte Jean-Pierre Beraud —Donibane-Lohizuneko entrenatzailea— eta Philippe Arrieta baionesak. Aitzinerako: Durquety eta Antolin (Baiona), Jean Ithurbide eta Xabi Larre (Garazi), Huarte (Miarritze) eta Tournier (Akize). Gibelean jokatzeko: Bujaldon eta Aitor Etxebarria (Baiona), Gil Dagerre (Donibane-Lohizune) eta Sardoin (Miarritze).

Iñaki Laskurain eibartarra izango da taldearen ardura-duna. Hark esan zigun Getxo-ko Garaizar jokalaria ohia-ri zor diotela bidaia egin ahal izateko laguntza: «San Miguel Garagardoak da torneoaren babeslea, eta Garaizar enpresa horretan sartuta dago. Horregatik, hegazkinez joan ahal



KOLDO ALDUNTZIN

Benidormen eta Lisboan ariko diren Euskarianseko ia jokalaria guztiak, joan den asteartean, Donibane-Lohizunen.

izango gara». Atzo 19:50ean irten ziren Sondikatik Madril, eta handik Benidormera.

Benidormeko torneo- ga-rrantzitsua dela esan zigun Beraud entrenatzaileak: «Iaz ez genuen irabazi, baina ongi jokatu genuen, eta espero dugu neurri berean erantzutea, talde desberdina bada ere». Torneo hori, gainera, Lisboako prestatzeko erabliko dutela zioen lapurtarrak; «errugbiarekin gozatze-ko aukera izango dute jokalariek, eta esperientzia hartuko dute Lisboako-ko jokatzeko».

JEAN-PIERRE BERAUD

■ ■ ■ «Iaz ez genuen irabazi, baina ongi jokatu genuen, eta espero dugu neurri berean erantzutea, talde desberdina bada ere. Gozatze-ko eta esperientzia hartzeko ona izan- go dute»

Estatu Batuak eta Belgika multzoan

Gaur arratsean eta bihar goizean sailkapen faseko partidak jokatu-ko dira, eta finalerdiak eta finala igande arratsean izango dira. Hamabi talde lehiatuko dira, eta Euskarians C multzoan ariko da, Estatu Batuetako Atlantis eta Belgikarekin batera. «Ez dira goren mailako taldeak, baina ez gaude lasai, eta serio-ki ekin diogu multzoko garaileak izateko», zioen Beraudek. Galesko Wizards da indartsuena.

Parisen erabakiko da Munduko Zazpikako Zirkuitua

Hamar torneok osatzen dute I. Zazpikako Munduko Zirkuitua, eta asteburu- an amaituko da, Parisko Charlety zelaian. Air France Seven izena du, eta Zirkuituko garailea erabaki-ko du. Hogeita lau talde lehiatuko dira, eta Fiji eta Zeelanda Berria dira fa- borigarriak, biak baitira sailka- peneko buru. Garaileak 30 puntu jasoko ditu. Indiako Dubai Torneoarekin hasi zen Zirkuitua, eta bi talde horiek elkarren lehian ari- tu dira txapelketan.

Litekeena da Miarritzeko Avrilek ez jokatzeko finala

Frantziako Kopako finala- ren atarian albiste txarra dator Miarritzetik, atzoko entrenamendu saioan tal- deko Denis Avril harroina lesionatu egin baitzen. Frantziarrak zuntz haus- dura ukan zuen ezkerreko zangoaren bolan, eta izot- za jarrita eraman zuten azterketa sakonagoa egite- ra. Avril ohikoa izan da az- ken partidetan, eta bistan da haren hutsunea naba- riko dela. Bestetik, Boga Boga abestia ikasten dihardute zaleek, Borde- len ozenki entzutea nahi baitute. Gaur eta maiatz-aren 31n izango dira entse- guak, Euskal Jai pilotale- kuan (19:30).

Pacific Rim ere jokoan da

Estatu Batuek, Kanadak, Tongak, Japoniak eta Fijik jokatzeko Pacific Rim Txapelketa, eta lehen par- tidan, Kanadak 29-11 irabazi zion Tongari. Gaur, Fi- ji-Tonga jokatu-ko da. Ha- siera batean Fijin zen jokatzeko, baina Fijin arazoak daude, eta ez dago segurtasun handirik.

Getxo Artea 25. urteurreneko ospakizunetan

Ohorezko Mailako azken partida igandean (12:00) jokatu-ko badu ere, El Mon- teren kontra, 25. urteurre- neko hainbat ekitaldi izan- go dituzte getxotarrek. Gaur, festa dute Algortako Gwendolyne aretoan (21:00). Argazki erakuske- ta, bertsolari saioa eta sariak izango dira.

Herve Durquety • EUSKARIANSEKO KAPITAINA •

«Torneoa irabazteko asmoa dugu»

DURQUETYK Akizen jokatu zuen iaz, eta Altunarekin batera heldu zen sasoiaren hasieran Baionara. Ez du partida askorik jokatu lehen taldearekin, arazo batzuk tarteko, baina sasoi-ko dago, eta Euskarinasi sendotasu- na emango dio.

■ Sasoi ongi amaitzeko opari polita da, ezta?

Bai, jakina. Uste dut Eus- kariansen dohainak berres- kuratu behar ditugula, Eus- kal Herriko ikurra baita, eta, nola ez, elastiko hori janztea ohorea da. Gainera, nazioar-

teko torneo- ga da, eta izena zabaltzeko aproposa.

■ Zuk esperientzia handia duzu zazpikakoan.

Bai, internazionala izan nintzen Frantziarekin 11 aldiz, eta gero, Euskarianse- kin hainbat partida jokatu ditut. Plazer bat da Murillo eta gainerako euskaldune- kin bat egitea, eta bidaia hau egitea.

■ Aurten gehixeago prestatuta zoazte.

Bai, bistan da. Torneo ona egin nahi dugu. Iaz Georgi-aren kontra galdu genuen;

talde gogorra. Baina aurten irabaztera goaz.

■ Zer aholku eman dizue entrenatzaileek?

Zazpikakoan ez da hain beharrezkoa paseak egitea. Aitzitik, tartea egin behar dira, eta kontrarioa nahas- tea lortu. Egun, fisikoki ongi prestatuta egon behar da eta zazpirako prestatu.

■ Zer behar du zazpikako jokalaria batek?

Nik uste dut dohain nagus- ia jakituria dela. Jakituria eta bista ona duenak ongi jokatu-ko du zazpikakoan.



KOLDO ALDUNTZIN

Horrez gain, kalkulatzaila eta pentsalaria behar da. Sarritan, azkar eta bururik gabe jokatzeko ez du emaitza onik ematen. Jakina, plaka- tzen, paseak egiten eta korri- ka egiten ere jakin behar du.